

Bergarako Olaso dorreko liburuen ardura bereganatu du Euskaltzaindiak

Obrak kontserbatu eta katalogatuko ditu akademiak. Ekimenaren helburua testuak berreskuratu ondoren publikoarentzat eskuragarri jartzea da

Elene Arrazola. Donostia.

Leizarraga, Joanes Haranburu, Poza Lizentziatua, André Favyn, Axular, Pierre de L' ancre, Oihenart eta puntako beste hamaika autoreren obrak gehitu dizkio Euskaltzaindiak bere liburutegiari. Era horretan, euskal kulturaren hain garrantzitsuak diren testu hauek berreskuratu, kontserbatu eta katalogatzeko parada izango dute Akademiako kideek. Ekimen hau Euskaltzaindiak Bergarako Olaso Dorrea Sorrerakundearekin urtetan bultzatu duen elkarlanaren emaitza izan da eta testu guztiak ikertu ostean, jendearen eskura jartzeko asmoa daukate.

Euskaltzaindiak eta Olaso Dorrea Sorrerakundeak azken honen ondare bibliografiko eta artxibistikoa Akademiaren ardurapean uzteko hitzarmena sinatu zuten atzo Bergaran eta Andres Urrutia, euskaltzainburua, eta Jose Luis Elkoro, Debagoienako elkarteko ordezkaria, izan ziren testua sinatzeko arduradunak. Akademiako buruak elkarlanaren garrantzia azpimarratu zuen "urtetako lanaren ondorioa izan delako eta etorkizunera begira gizartearentzat ondorio onuragarriak izango dituelako".

Izan ere, euskal kulturaren titulu aipagarrienak gorde dituzte gaur arte Bergarako liburutegian. Besteren artean, George Lacomberen bilduma inportanteenetakoa dago bertan eta baita XVI, XVII eta XVIII. mendeko beste hainbat obra garrantzitsu ere.

Bergarako liburuak Euskaltzaindiak Bilbon duen egoitzara eramango dituzte orain ikerketa lanak burutu ahal izateko. Bertan, testuak aztertu, kontserbatu eta katalogatuko dituzte. Urrutiak adierazi zuenez, egoera onean aurkitzen dira orokorrean liburuak, baina hala eta guztiz ere, "badaude denboraren poderioz pixka bat okerrago dauden batzuk ere".

Altxor literario hauek guztiak eguneratu ondoren, digitalizatu egingo dituzte jendearen eskura jartzeko helburuarekin. Horrez gain, liburu originalen kopiak egingo dituzte publikoak lehengo formatua kontsultatu ahal izateko.

"Testu hauek guztiak egungo teknologi berrietara moldatu nahi ditugu etorkizunera begira erabilgarriak izaten jarrai dezaten", azaldu zuen, ildo honetan, Urrutiak.

Helburu beraren atzetik, Interneten ere jarriko dituzte eskuragarri Olason gordetzen diren liburu guztiak gizarteari zabaltzeko asmoarekin.

Urtetako lankidetzak

Olaso Dorrea Sorrerakundea Maria Dolores, Isidro eta Telesforo Monzonek eta Mari Josefa Ganuzak sortu zuten eta egun hainbat kidek osatzen dute fundazioa, horien artean Euskaltzaindia bera. Ondorioz, 1980az geroztik, etengabeko hartu-emanak mantendu dituzte bi elkarteek.

Bi hamarkada hauetan berebiziko garrantzia izan du Akademiaren Azkue Bibliotekak, batez ere Jose Antonio Aranak, Josune Olabarriak eta Pruden Gartziak.